

Ariketa hauek Ikasbileko 1903711 atazan aurkituko dituzu

Audioaren erreferentzia: JJ-31 Oreina

Mailak: B2-C1

Funtzioa: aholkuak eman, iritzia azaldu, balorazioa egin,

Adierazpide linguistikoak: lexiko (neska-lagun, bikote, ligatu, kuxkuxero, banandu, zurrumurru, interes, sekretu), -(z)earren: *jakitearren*, konpletiboa, zehar galdera, agintera, zertan izan

Azken ekintza: Ligatzeko estrategien berri eman eta eraginkorrenak aukeratu.

EGITEKOAK




1-Ikaskelara etorri aurretik egitekoa. Irratsaioko pasartean agertuko den gai nagusia, intimitatea gordetzeko eskubidea eta ligatzea, aurreikusteko bertso bat irakurri eta hainbat galdera erantzun.

2- Ikasgelan amaitu ondoren egitekoak.

- Oreinaren metafora birkontatzeko esaldiak lotu
- Hizkuntzari erreparatu: lotu antzeko esanahia duten egiturak

1- Entzun aurretik

1.2 Joneren kezka

   Joneri ez dio graziaz egin bere senar ohiak. Jonekin ikusi izana eta hala azaldu dio Joni ere. Elkarriketa entzun eta Joneren kezka nagusia zein den esan behar dute.

Zuzenketa: zurrumuruak zabalduko direlako ez dio graziaz egin




2- Entzun bitartean

2.1 Izen-saltsa

Elkarrizketan aipatzen diren izen-saltsa argitzeko asmoz, esaldiak osatuko dituzte, falta diren izenak idatziz.




Zuzenketa: 1. Oskar / 2. Vanessa / 3. Nikolas / 4. Oskar / 5. Vanessa / 6, 7. Zuriñe / 8. Merkel / 9. Zuriñek / 10. Jon / 11. Jonek

2.2 Bien artekoa

   Entzundakoaren arabera, Jon eta Joneren artean zer dagoen egokien azaltzen duen egoera aukeratu dute, eta ondoren, elkarrekin komentatu dute erantzuna zertan oinarritzen duten (hitzak zein ezer esan gabe ulertarazten dena...).

Zuzenketa: Jon benetan interesatuta dago Jonerengan, baina Jone jendaurrean elkarrekin agertzeko aurreiritziak ditu eta zaila jartzen ari zaio.





2.3 Ligatzeko prest

   Jonek bulegora ligatzeko asmotan ere joaten omen dela azaldu dio Joneri. Zein estrategia den jaso behar dute ikasleek

Zuzenketa: bertara joanda interesa piztuta eduki bulegoko nesengan (oreinaren metafora erabili du hori azaltzeko)

3. ENTZUN ONDOREN

3.1 Ligatzeko estrategiak

    Jarduera honen helburua da ikasleek ligatzeko erabili ohi dituzten estrategiak partekatu eta denen artean eraginkorrenak iruditzen zaizkienak aukeratzeko. Ideia gisa, testu bat irakurriko dute eta

bertako ideiak baloratuko dituzte. Ondoren, ideia berriak proposatu talde txikitan eta azkenik, talde handian partekatuko dituzte.

Zuzenketa: Hutsuneak bete

1. Konfiantza eta segurtasuna erakutsi behar duzu.
2. Barre eragin behar diozu
3. Argi dago ligatzeko jai-giroa eta gaua direla egoera egokienak
4. saiatu zure lagunena bat zurekin eramaten
5. Ez zaitetz zuzenean joan gustatzen zaizun neskarengana
6. Galdetu berari buruz

BAKARKA EGITEKO ARIKETAK

1.Oreina

Elkarrizketan, Jonek bere ligatzeko estrategiaren berri eman du oreinaren metafora erabiliz. Bitxia izan da azaldu duena, ezta? Orain, esandakoa birkontatzea dagokizu zuri. Horretarako, osatu esaldien bigarren zatia zerrendatik egokiena hartuz.

Zuriñek, lehengo batean galdetu omen zion Joneri ea bera eta Jon elkarrekin ateratzen ari diren. Jonek erantzun zion ezetz, lagunak zirela eta lan batekin laguntzen ari zaiolako joaten dela sarritan bulegora. Jonek, ironia erabiliz, ikusarazi dio Zuriñek, hori jakinda, ez duela galduko bereganako interesa. Izan ere, lan hori dela-eta, bulegora joaten jarraituko du eta berak bere lurraldea markatzeko erabiliko ditu bisitaldi horiek, oreinek egiten duten moduan. Jone harrituta geratu da oreinaren adibidearekin, eta orduan, Jonek azaldu dio orein arrak eme guztien interesa piztuta gordetzeko bere lurraldea "markatu" beharra duela. Joneri iruzkin hori lerdokeria hutsa iruditu zaio eta bere aurrean puntuak galdu besterik ez duela egin jakinarazi dio

2. Hizkuntzari erreparatu

Elkarrizketan erabili diren hainbat molde eta egitura dituzu segidan. Hiru aukera horien artean zein den (edo diren) esanahi berekoa(k) adierazi behar duzu.

Jakitearren
Ez zidan graziaz egin
Zurumurrak zabalduko dira
Ez dute zertan eduki nire bizitzaren berri
Nori interesa dakioko

TRANSKRIPZIOA

OSKAR: Datorren asteburuan eskiatzera noa eta badakit ez zaidala tokatzen.. baina Nikolas eraman nahi nuke nirekin... gurasoekin noa eta badakizu, aitona-amonak nolakoak diren

JONE: Ez dago arazorik.. baina ez ezazu astakeriarik egin, Niko oraindik oso txikia da eta.

OSKAR: Lasai ez dut pistetara igoko, baina bueno elur giroa behintzat ezagutzen has dadila, ez?

JONE: Klaro (jakina). Elur giroa, apreskia...

OSKAR: Zuri gustatzen zitzaizun ba... Aizu, atzo arratsaldean tipo batekin ikusi zintudan zentroan nire gimnasioko batek ireki duen lokal berrian...

JONE: Ah bai?

- OSKAR: Norbaitekin hasi zara?
- JONE: Ez, lagun bat da, eta gainera zuri ez zaizu inporta norbaitekin nabilen edo ez.
- OSKAR: Ez, inporta ez, besterik gabe, jakitearren. Nikolasek ezagutzen al du zure laguna?
- JONE: Hori ere ez zaizu inporta...
- OSKAR: Bueno, aizu, nik uste hitz egin dezakegula gauza hauetaz, badakizu Nikolasek Vanessa ezagutzen du.. eta.
- JONE: Bada, zerbait esan behar dizudala iruditzen zaidanean esango dizut
- OSKAR: Uiii Jone.. aquí hay tomateeee
- JONE: Lanean nago eta "kolgau" behar dizut. Agur Oskar
- OSKAR: Ciao...
- JON: Eta horrek ba al du garrantzirik?
- JONE: Ez, baina ez zidan graziarik egin
- JON: Bueno bananduak zaudete. Bakoitzak nahi duena egin dezake ezta?
- JONE: Ia, bai, baina...
- JON: Berak ez du neska-lagunik orain?
- JONE: Vanessa
- JON: Vanessa?
- JONE: Bai, banatu eta denbora gutxira hasi zen harekin. Oraindik ez ditu 30 bete...
- JON: Eta orduan zer demonio, zer arazo daukazu?
- JONE: Ez da arazoa, baina kontua da orain zurrumurruak zabalduko direla.
- JON: Joder Jone... ez gaudela institutuan... Eta zer modukoa da Vanessa?
- JONE: Ba gezurra badirudi ere, Oskarrek egoteko nahiko normala da..
- JON: Oskarrek egoteko? Barkatu baina...
- JONE: Eta ez ezazu ezer esan. Badakit ni harekin ezkondu nintzela.
- JONE: Zuriñek ere lehengo batean galdetu zidan ea elkarrekin gabiltzan
- JON: Eta zer esan zenion?
- JONE: Ba ezetz, lagunak ginela eta lan batekin laguntzen zabiltzala, horregatik zatozela bulegora.
- JON: Ondo egin duzu... mantendu dezala nireganako interesa.
- JONE: Baina zer diozu?
- JON: Horixe, orain badaki bulegora etortzen jarraituko dudala, nire territoria (lurraldea) markatzera.
- JONE: Territoria (lurraldea) markatzea? Baina berriro hasi al zara porroak erretzen?
- JON: Badakizu, orein arrak, bere eme guztien interesugarra bizirik mantendu behar duela.
- JONE: 10 puntu Jon, 10 puntu galdu dituzu oraintxe bertan
- JONE: Bulegoan ez daukate zertan eduki nire bizitzaren berri.
- JON: Klaro (jakina)... nori interesa dakioke Merkelen bizitza?
- JONE: Niri beren bizitza interesatzen ez zaidan moduan, haiei nirea bost.
- JON: Hori ez da horrela.. guztiok gara kuxkuxero samarrak, guztioi gustatzen zaigu jakitea besteen bizitza eta sekretuen berri.
- JONE: Niri ez
- JON: Klaro (jakina).. zuri ez... Ba jakin ezazu: Zuriñek badaki gure artean badagoela zerbait...
- JONE: Nola jakingo du? Ezer ez badago gainera?
- JON: Begiratzen nauen modurengatik dakit nik.
- JONE: Nola begiratzen zaitu?
- JON: Irribarre konplize batekin, nik uste Zuriñe zurengatik poztu egiten dela
- JONE: Eta guzti hori irribarre egiten dizulako dakizu
- JON: Bai, hori da edo bestela, beste aukera bat ere badago.
- JONE: Zein?



JON: Hiltzera kondentua dagoenari borroeroak botatzen dioen azken erruki begirada.

JONE: Idiota!